

A photograph of two young girls hugging. The girl in the foreground is covering her eyes with her hands, while the girl behind her is smiling. The image is framed by a large red circle.

NAHASTU NIREKIN



Save the Children

EUSKADI
ERANSKINA

Segregazio sozioekonomikotik
hezkuntza inklusibora

Argitalpen hau egiteko, Abay Analistas taldeak (M^a Isabel Martínez Martín, Rosa Santero Sánchez, César Pérez López, Nuria Guilló Rodríguez eta Leila Rodríguez Florentín) aurrez egindako ikerketa bat, idatzi sorta bat eta hezkuntza-politikaren arloan adituak diren pertsonekin egindako elkarrizketak eta lan-mahaiak hartu dira oinarritzat.

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu Maite Huarte, Francisco Luna, Gonzalo Larruzea eta Pedro Macho euskal hezkuntza-politikari buruzko adituei, argitalpen honetan kontuan hartzen diren segregazioaren aurka borrokatzeko proposamen asko beraiekin eztabaidatzea eta argitzea ahalbidetzeagatik.

Euskadi Egoitzako zuzendaria:

Eva Silván

Koordinazioa:

Lucía Martínez

Egileak:

Lucía Martínez

Álvaro Ferrer

Iñaki Alonso

Azaleko argazkia:

Alba Lajarín /Save the Children

Grafikoak eta ilustrazioa:

Germán Gullón (Valbhy Design)

Artea eta maketazioa:

Alba Lajarín

Editorea:

Save the Children España

2018ko Apirila



Edukia

- 4** Sarrera
- 6** Irakurtzen jarraitu aurretik... Eskola-segregazioa ulertzeko oinarrizko zenbait kontzeptu
- 7** Zenbateko segregazioa dago Euskadin?
- 12** Nolakoak dira kontzentrazio oso altua duten ikastetxeak Euskadin?
- 16** Nolakoak dira Euskadin kontzentrazioa jasaten duten ikastetxeetako haurrak?
- 22** Segregazioan eragina duten Euskadiko hezkuntza-sistemaren ezaugarriak
- 24** Zer lortuko genuke eskola-segregazioa ezabatuta eta eredu inklusibo baten aldeko apustua eginda?
- 25** Zer ari gara egiten Euskadin eskola-segregazioaren gaiari heltzeko?
- 28** Euskadin eskola-segregazioa deuseztatzeko proposamenak

Sarrera

Haurrak haien egoera sozioekonomikoaren arabera ikastetxe desberdinetan bereiztea (eskola-segregazio sozioekonomikoa) eragozpen nagusietako bat da haurrei aukera-berdintasunean kalitatezko hezkuntza bat jasotzeko eskubidea bermatzeko, kohesio soziala lortzeko, pobrezia belaualdien artean transmititzea eragozteko eta hazkunde ekonomiko inklusibo baterantz pausoak emateko.

Euskadin, beste autonomia-erkidego askotan bezala, eskola-segregazio sozioekonomikoaren tasak etengabe gora egin du azken urteotan. Eskola-segregazioa areagotzearen arrazoa, batez ere, fenomeno hori geldiarazi eta ekitatearen printzipioan oinarritutako hezkuntza inklusibo baten aldeko apustua egingo duten hezkuntza-politiken falta da.

Gaur egun, Euskadiko 10 haurretik 4k ikasle kalteberen kontzentrazio altua duten zentroetan ikasten dute.

Bereizten duen (edo inklusiboa ez den) hezkuntza-sistema batek haurren garapenerako aukerak mugatzen ditu, batez ere ume kalteberenak, eta ez da hain eraginkorra. Pairen efektuak profil desberdineko ikasleak (zailtasun gehien dutenak gutxien dutenekin) nahastetik sortzen diren onurak maximizatzen ditu eta, hala, laguntza gehien behar duten ikasleen arrakastarako eta garapenerako aukerak areagotu eta ikasturtea

errepikatzeko probabilitatea gutxitu egiten da.¹ Era berean, ikasle nabarmenen emaitza akademikoek kalterik izango ez luketenez, gizarte osoarentzat da onuragarria. Aldiz, Espainiako errepikatze eta eskola-uztearen maila altuek koste ekonomiko eta sozial altua dute, eta segregazioak tasa hori igotzen laguntzen du.

lkerketa asko daude hezkuntza-sistema onek dituzten herrialdeek, hezkuntzaren kalitateaz eta bikaintasunaz gain, ekitatearen aldeko apustua egiten dutela frogatzen dutenak. Hezkuntza-ekitatearen aldeko apustua egiteari esker hezkuntza-eskubidea bermatzen da, familien eta ikasleen baldintza sozial eta ekonomikoak ez daitezen oztopo bat izan haien gaitasun guztiak garatzeko, eta pobrezia eta desparekotasun sozialak enkistatzea eta epe motz eta luzera ondorioak izatea eragozteko.²

Euskal hezkuntza-sistemak ikasle bakoitza haren beharren -sozial, ekonomiko ala fisikoen- arabera tratatu behar du, denek aukera bera eta arrakastarako posibilitateak dituztela bermatuz.

lido horretatik, hezkuntza-arloko Espainiako legeriak, bai 2006an onartutako Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak (HLO), bai 2013an onartutako Hezkuntzaren Kalita-

1 Save the Children (2016).

2 ELGA (2012) eta Murillo, F. (2016).

tea Hobetzeko Lege Organikoak (LOMCE), hezkuntza-sistema zuzen bat sustatzeko beharra onartzen dute. Horrek esan nahi du hezkuntza-sistema ikasle guztiei aukera bera eskaintzeko gai izan beharko litzatekeela, haien egoera sozioekonomikoa edozein dela.³

Bestalde, hezkuntzaren arloan indarrean dagoen euskal legeriak, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak,⁴ 3. artikuluan, euskal eskola publikoa definitzeko «anitza(...), partaidetzakoa, ezberdintasunen berdintzailea eta dibertsitateen bateratzailea» dela esaten du. Gainera, helburuetako bat, legeak berak ezartzen duen bezala, «hezkuntzarako eskubidea benetan baliatu ahal izatea bermatzea, hori galarazten duten ekonomia- eta gizarte-oztopoak (...) ezabatuz».

Eusko Jaurlaritzak 2017an aditzera eman zuen Hezkuntzaren aldeko Itun Autonomiko berri bat bultzatzeko asmoa zuela, 1993ko arau zaharra ordezkatzeko duen Hezkuntzaren Euskal Legea garatzeko eta onartzeko oinarri eta urrats gisa.

Hezkuntza Itun hori bultzatzeko, Eusko Jaurlaritzak «Hezkuntzaren aldeko Akordioa» izeneko esparru-dokumentu bat landu du, helburutzat eta funtsezko oinarritzat ekitate sustatzea, aniztasuna defendatzea, eskolatzeko ez-diskriminatzailea eta erantzunkidetasuna dituen. Hori guztia kohesio soziala eta aukera-berdintasuna bermatzeko asmoz. Gainera, proposatutako hainbat estrategia

eta ekintza eskola-segregazioa ezabatzerako eta eskola inklusiboagoak sustatzeko bideratuta daude.⁵

Horrela, bistakoa da estatuko zein Euskadiko legeek eta itunak eta hezkuntzaren euskal legea izango denak bidezko hezkuntza-sistemak sustatzeko beharra jasotzen dutela. Dena den, apustu hori ahalbidetuko duten hezkuntza-politika zehatzak martxan jarri behar dira, gauzatu ahal izateko.

Dokumentu honek, Save the Children erakundeak osatutako **“Nahastu nirekin. Segregazio sozioekonomikotik hezkuntza inklusibora”**,⁶ argitalpenaren eranskin gisa, helburu hau du: eskola-segregazio sozioekonomikoa euskal hezkuntza-sistemaren funtsezko erronka bezala kokatzea, eta Hezkuntza Itunean eta Hezkuntzaren Euskal Legea izango den horretan eragina izatea, segregazioa ezabatzeko neurri zehatz eta eraginkorrak erants ditzaten, hala, haur guztiek ikasteko eta beren gaitasunak garatzeko aukera bera izango dutela bermatuz.

3 Sicilia, G. eta Simancas, R. (2018).

4 <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzak/-/albisteak/2017/hezkuntza-ituna-bikaintasuna-eta-irakasleen-prestakuntza-nahiz-egonkortasunaren-aldeko-apustua/>

5 Hona hor sartzen diren beste proposamen batzuk: hezkuntza-premien indize bat garatzea, ikasleak ikastetxeetan sartzean aniztasuna modu orekatuan kudeatzea, berme-mekanismo zehatzak, lurraldeetako eskolatzeko bulegoak sortzea eta ikastetxeen autonomia handiagoa ematea.

6 Abay Analistas taldeak aurrez burututako ikerketa batean oinarriturik.

Irakurtzen jarraitu aurretik...

Eskola-segregazioa ulertzeko oinarritzko zenbait kontzeptu

ESKOLA-SEGREGAZIOA

Ikastetxeen osaeraren eta haien ingurunearen osaeraren artean izaten diren desberdatze edo desberdintasunen emaitza da. Geroz eta desberdintasun handiagoa, geroz eta segregazio handiagoa. Bi osaerak zenbat eta antzekoagoak izan, geroz eta inklusio eta kohesio sozial maila handiagoa egongo da.⁷ Segregazioaz ari garenean eremu zehatz bati egiten diogu erreferentzia. Auzo bat, udalerrri bat, autonomia-erkidego bat edo herrialde zehatz bat izan daiteke.

Ikertu beharreko ikasleen profilaren arabera, zenbait eskola-segregazio mota bereiz ditzakegu: jatorriagatik, sexuagatik, gaitasun akademikoengatik edo, gure kasuan, egoera sozioekonomikoagatik.

ESKOLA-SEGREGAZIO SOZIOEKONOMIKOA

Baliabide gutxien duten familietako haurren banaketa desberdina ikastetxeetan.

KONTZENTRAZIOA

Segregazio egoera bat larriagotzen denean gertatzen da, eta egoera sozioekonomiko baxuko ikasleen portzentaje oso altua duten ghetto ikastetxeak agertzea eragiten du.

Eranskin honetan segregazio kontzeptua erabiliko dugu (beti segregazio sozioekonomikoari erreferentzia eginez) Euskadiko egungo egoerari heltzeko (lurralde-ikuspegia). Bestalde, kontzentrazio kontzeptua erabiliko dugu profil sozioekonomiko baxuko ikasleen portzentaje altua duten euskal ikastetxeen ezaugarriari buruz hitz egiteko.

⁷ Alegre (2017). Eskola Hautatzeko eta Esleitzeko Politikei buruzko hitzaldia.

Zenbateko segregazioa dago Euskadin?

Nola neurtzen dugu segregazioa?

Segregazioa neurtzeko modurik ohikoena indizeak erabiltzea da. Horietako bakoitzak bere ezaugarriak eta erabilerak ditu.

Eranskin honetan erabiliko dugun indizea Gorard edo G indize⁸ deritzona da. Indize horrek talde minoritario baten (gure kasuan ikasle kalteberak) pisuaren eta taldeko ki-deen guztizkoaren (ikasle guztien) arteko aldea adierazten du. Modu errazagoan, indize hori lurraldeko eskola-segregazioa ezabatzeke beste ikastetxe batzuetara eraman behar diren haurren proportzioa bezala ulertu daiteke.


Nola dago Euskadi, beste autonomia-erkidegoekin eta Espainiarekin alderatuta?

Euskadin eskola-segregazioaren indizea 0,27 da, eta zifra altuenak dituzten autonomia-erkidegoen artean laugarrena da, Madrid, Katalunia eta Errioxaren atzetik. Estatuan, segregazio-indizea 0,31n dago, Euskal autonomia-erkidegoan azaltzen den balioa baino altuagoa.

Euskadik Andaluzia, Asturias eta Errioxaren antzeko balioak ditu, eta Madrilgo Erkidegotik (segregazio-maila altuena du) hiru postura dago, eta Balear Uharteak (Aragoi eta Valentziako Erkidegoarekin batera segregazio-indize baxuena duena) baino askoz ere gorago.

⁸ G indizearen abantailetakoa bat da erabilgarria izaten dela lurraldeak alderatzeko, talde minoritario bakoitzak lurralde bakoitzean duen pisuaren desberdintasunak zuzentzeko gai baita. Beraz, autonomia-erkidego bat beste batekin konparatzen dugunean, ez da laginaren tamainarekin zerikusia duen akatsik egongo. Gainera, indize hau ezin hobea da eskola-segregazioaren bilakaera ikusteko denbora tarte zehatz batean.

Eskola-segregazioa maila sozioekonomikoaren arabera, Espainiako autonomia-erkidegoetan, 2015ean. Gorard indizea Q1erako
(profil sozioekonomiko baxueneko ikasleen % 25)



Iturria: Geuk egina, Murillo F. eta Martínez-Garrido C.-k egindako ikerketan oinarriturik (2018)

Nola dago Euskadi Europako beste herrialdeekin alderatuz?

Euskadiren puntuazioa Herbehereak, Erresuma Batua, Danimarka eta Malta herrialdeen antzekoa da. Segregazio handiagoa du, Irlandak (0,24), Kroaziak (0,24) eta Poloniak (0,25) baino, eta Finlandiaren, hau da, segregazio gutxien duen Europako herrialdearen gainera dago.


Nolako izan da eskola-segregazioaren bilakaera Euskadin azken hamar urteetan?

Eskola-segregazioa Euskadin % 9,7 igo zen 2012tik 2015era, ordurainoko beherako joera apurtuz. Espainian, 2006. eta 2015. urteen artean, segregazio-indizeak % 13,4 egin zuen gora.

Aldi horretan guztian (2006-2015) eta beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta, Euskadik igoera txikiagoa du (% 8,7). Igoera nabarmenena Madrilgo Erkidegoan izan zen, non indizeak % 35,8ko hazkundera adierazten


duen; Euskadin ikusitako hazkundera baino ia lau aldiz handiagoa.

Eskola-segregazioa maila sozioekonomikoaren arabera, autonomia-erkidegoen eta Europar Batasuneko herrialdeen arteko alderaketa 2015ean. Gorard indizea Q1erako




Iturria: Geuk egina, Murillo F. eta Martínez-Garrido C.-k egindako ikerketan oinarriturik (2018)

Gorard (G) segregazio-indizearen bilakaera denboran zehar. Nazionala eta autonomia-erkidegoka. 2006-2015 epealdia



Iturria: Geuk egina, PISA txostenetan oinarriturik (2006-2015)

Gorard (G) segregazio-indizearen portzentajeen aldaketa 2006-2015 epealdian autonomia-erkidegoka




Iturria: Geuk egina, PISA txostenetan oinarriturik (2006-2015)

2012-2015 epealdian jaitsiera batetik (% -2,8 2006-2009 artean eta % -0,9 2009-2012 artean) ia % 10eko igoera batera pasatu zen. Euskadi da, aurreko

urteetan zuen joerarekin alderatuta, segregazioan hazkunde handiagoa izaten ari diren autonomia-erkidegoetako bat.

Gorard (G) segregazio-indizearen aldaketa zenbait azpiepealditan autonomia-erkidegoka



Iturria: Geuk egina, PISA txostenetan oinarriturik (2006-2015)

Nolakoak dira kontzentrazio oso altua duten ikastetxeak Euskadin?

Espainiako eskoletako kontzentrazio-maila identifikatu eta aztertzeko kategorizazio bat egin da, kontzentrazio-mailaka, ikasleen artean kalteberatasun egoera txarrena duen %25en presentziaren arabera (1 kuartila, Q1) ikastetxe bakoitzean.

Horrela, ikasle horien presentzia geroz eta handiagoa izan ikastetxe batean, geroz eta kontzentrazio-maila handiagoa egongo da. Kategorizazio horren arabera, lau ikastetxe mota izango genituzke Q1 ikasleen presentziaren arabera.

- Kontzentrazio-maila oso altuekin («ghetto ikastetxeak»): % 50etik gora.
- Kontzentrazio-maila altuekin: % 26 eta % 50 artean.
- Kontzentrazio-maila ertainekin: % 10 eta % 25 artean.
- Kontzentrazio-maila oso baxuekin: % 10 baino gutxiago.

Kontzentrazio oso altuko ikastetxeak (edo «ghetto ikastetxeak») ez datoz bat egungo gizartearen ezaugarri den heterogeneotasunarekin eta, aurrerago ikusiko dugun bezala, zailtasun handiak dituzte kohesio soziala eta hezkuntza-ekitatea sustatzeko.

Euskadin kontzentrazioa jasaten duten ikastetxeen ezaugarri nagusiak

Profil sozioekonomiko baxuko ikasleen kontzentrazioa Euskadin handiagoa da Espainian baino. Euskadin kontzentrazio-maila oso altua duten ikastetxeetan, profil sozioekonomiko baxuko ikasleen portzentajea % 68,8 da batez beste. Espainian, berriz, 15 puntu apalagoa da (% 53,7).

Profil sozioekonomiko baxuko ikasleen kontzentrazioak ikastetxe guztien % 46,6ri eragiten die Euskadin. Kontzentrazio-maila oso altuko euskal ikastetxeen % 88,9 titulartasun publikokoa da. Kontuan izanik ikasle guztien % 48 ikastetxe kontzentratuetan eskolatua dagoela,⁹ nahiko argi ikusten da sare horrek aukera-berdintasuna edo hezkuntza-ekitatea lortzen laguntzeko zereginean¹⁰ duen erantzunkidetasun falta.

Bestalde, profil sozioekonomiko baxuko neska-mutilen kontzentrazioak laguntza linguistikoaren beharra eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen presentzia handiagoa dakar. Ezaugarri horri gehitu behar zaio baliabide gutxi izan ohi dituztela eskuragarri eta irakasle kalifikatuenean konplexutasun gutxiagoko ikastetxeetara ihes egiten dutela.

Ikastetxe horien beste ezaugarri nagusietako bat eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza eskasa da. Kontzentrazio-maila oso altuko euskal ikastetxeetan, 10etik 5ek ez dute inolako eskolaz kanpoko ekintzarik eskaintzen (Espainiako kasuan 10etik 4k). Kontzentrazio-maila oso baxuko ikastetxeen kasuan, % 83,3k eskolaz kanpoko ekintza 1, 2 edo 3 eskaintzen dituzte (estatuan, % 76,3k).

⁹ http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_REVI=004060&N_FASC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

¹⁰ Sindic de Greuges (2016).

Gabezia hori azaltzen duen arrazoi nagusietako bat ekintza mota horien finantzaketa publikoaren falta eta kostuen zati handiena haurren familiek beren gain hartu behar izatea da. Finantzaketa falta horren ondorioz, ezinbestekoa bihurtu da guraso-elkarteak eskolaz kanpoko ekintzen bermatzaile eta sustatzaile gisa jardutea. Hala ere, kontzentrazio-maila altuak dituzten ikastetxeetan, elkarre horien presentzia beste ikastetxetan baino txikiagoa da¹¹ eta, horietako batzuetan, desagertzen ari dira.

Azkenik, oro har, ikus daiteke seme-alabak ikastetxe horietan matrikulatzen dituzten familien lehentasuna ikastetxearen hurbiltasuna dela, errendimendu akademikoaren edo ikastetxearen filosofiaren gainetik. Aldiz, kontzentrazio-maila oso txikia duten


ikastetxeetako familiek lehentasuna ematen diete azken bi irizpide horiei.

Lehentasunen desberdintasun hori hobeto ulertzen da aintzat hartzen badugu familia horien egoera sozioekonomikoa. Horietako batzuetan lanpostu ezegonkorrak dituzte, haurren hazkuntza eta bizitza profesionala bateratzea zailtzen dutenak, eta gastu gehigarriei aurre egiteko zailtasunak dituzte, hala nola eskola-garraioari edo garraio publikoari. Bestalde, hezkuntza-sistemaren funtzionamenduari eta eraginari buruzko ezjakintasunak, eskolatzeari eta matrikulazio-prozesuei dagokienez, eragina izan dezake bizi deneko inguruarekiko atxikimenduan.¹²

11 Save the Children (2016).

12 Alegre. A et al (2010).

Ikasle kalteberen batez besteko portzentajea kontzentrazio oso altuko ikastetxeetan Espainian eta Euskadin eta ikastetxeen portzentajea kontzentrazio-mailaren arabera Euskadin eta Espainian



Nolakoa da kontzentrazio-maila oso altua duen ikastetxe bat Euskadin?



Ikastetxe Publikoa

10 ikastetxetik 9 publikoak dira



Baliabide gehigarrien beharra

2 ikastetik 1 (Espainiaren kasuan 3tik 1)
etxe kalteberetakoak dira



Eskolaz kanpoko ekintza gutxi

Ikastetxeen erdiek baino gehiagok ez dute inolako ekintzarik eskaintzen (% 55,9 Euskadin, eta % 41,2 Espainian)



Ikasketetan laguntzeko baliabideen eskasia**

Kontzentrazio oso txikiko ikastetxeen baliabide kopuru bera dute



Aurretik eskolarekin lotura duten eremuko familiek osatua**



Gehiago espezializatzen dira humanitateetan zientzietan baino**



Arazoak, irakasle espezializatuen ihesa dela eta

Kontzentrazio oso baxuko ikastetxeetako irakasleek 4 aldiz prestakuntza handiagoa dute




Irakasleen inplikazio falta orokorra, eta proiektu bateraturik ez



Irakaskuntza zailtzen dituzten oztopoak: baliabide eskasia eta ikasleen eta irakasleen jarrera

Irakasteko baliabideen urritasun bikoitza, ikastetxeen guztizkoarekin alderatuta



(**) Estatu osoko datuak


Nolakoak dira Euskadin kontzentrazioa jasaten duten ikastetxeetako haurrak?

Kontzentrazioa jasaten duten ikastetxeetara joaten diren ikasleen ezaugarri esanguratsuenetako bat, gainerako ikasleen batezbestekoarekin alderatuta, maila sozioekonomikoa hiru aldiz txikiagoa dutela da. Izan ere, Euskadiko ikasle behartsuenen % 71 (Espainiaren kasuan, % 72) mota horietako ikastetxeetara joaten da. Portzentaje hori lau aldiz txikiagoa da abantaila sozialak dituzten ikasleen kasuan (% 18,4).

10 haurretik 7k

Euskadin kalteberatasun-egoeran dauden 10 haurretik 7k kontzentrazio-maila altua edo oso altua duten ikastetxeetan ikasten dute.

Ikasleen banaketa ikastetxearen kontzentrazio-mailaren arabera Euskadin



Iturria: Geuk egina, 2015eko PISA datuetan oinarriturik

Kontzentrazio oso altuko ikastetxeetan eskolatutako ikasleek zenbait ezaugarri dituzte, kontzentrazio-maila baxuagoko ikastetxeetan ikasten duten ikasleengandik bereizten dituztenak:

Alde batetik, neska-mutil horien gurasoek batez besteko ikasleen gurasoek baino kualifikazio apalagoko lanpostuak dituzte. % 16k soilik (% 78 kuartil altuenaren kasuan) egin dituzte unibertsitate-ikasketak, masterra edo doktoretza.

Bestalde, nahiz eta haur horietako gehienak espainiar jatorrikoak izan (10etik 6 Euskadin, eta 10etik 7 Espainian), ikasle etorkinen (lehenengo eta bigarren belaunaldikoen) kopurua handiagoa da mota horietako ikastetxeetan, kontzentrazio-maila baxuagokoetan baino (% 3,5 kontzentrazio oso baxuko ikastetxeetan) eta altuagoa da, era berean, estatuan izaten den kopurua baino.

Kontzentrazio-maila oso altuko euskal ikastetxeetan 10 ikasletik 4 (% 43) lehenengo edo bigarren belaunaldiko etorkinak dira (% 27 Espainiako kasuan).

Ikasle-profil horren kontzentrazio altuaren arrazoietako bat, alde batetik, ikastetxe horietan ikasle etorkin asko ikasturtea hasi ondoren matrikulatzen direla izan daiteke («matrikula bizia» deritzona, ezohiko matrikulazio-epea). Horrek azalduko luke kontzentrazio baxuagoko ikastetxe askok zergatik dioten gainditu egin dutela ohiko matrikulazio-epean baimentzen den ikasle matrikulatuen ratioa (% 10). Bestalde, eta nahiz eta ikasle etorkinak itunpeko ikastetxeetan matrikulatu (kontzentrazio-maila baxuagoekin), normalean hurrengo urtean ikastetxe publikoetara aldatzen dira. Horren arrazoia ikastetxe mota horietan eskolatzek dakarren gainkostua (kuotak kobratzea) izan daiteke, edo zuzendaritza-taldeak ikastetxez aldatzeko iradoki izana (batzuetan, desberdintasun erlijioso edo kulturalak direla medio).

“Ondasungabeak. Haurren arteko desoreka, aukera-berdintasuna eta politika publikoak Espainian” (2017) (Euskadi eranskina) txostenean jada azpimarratzen zen ikastetxe segregatuetan ikasten duten ikasleen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat ikasturtea errepikatzeko probabilitate handiagoa izatea dela: kontzentrazio oso altuko ikastetxeetan ikasten duten ikasleen % 56k errepikatu du gutxienez behin, batezbestekoa baino 34 puntu gehiago (% 21,4) eta kontzentrazio-maila oso baxuko ikastetxeetara doazen haurrekin alderatuta (% 7,6), 7 aldiz handiagoa da ehuneko hori. Espainiaren kasuan, kontzentrazio oso altuko ikastetxeetara doazen ikasleen artean errepikatzen dutenen portzentajea Euskadin baino 19 puntu txikiagoa da (% 36,5), eta batezbestekoaren portzentajea, berriz, % 26,6 da.

Kontzentrazio oso altuko ikastetxeetan ikasten duten haur euskaldunek probabilitate handiagoa dute errepikatzeko (ehuneko heren bat gehiago), Espainiako ikasle mota horrek berak baino.

Gainera, ikasle-talde horrek unibertsitate-ikasketak egiteko duen itxaropena ere nabarmen txikiagoa da. **% 30ek soilik espero du unibertsitate-ikasketak egin ahal izatea. Segregazioa jasaten ez duten ikasleen artean, portzentaje hori % 73raino igotzen da, bikoitza baino gehiago.**

Euskadin kontzentrazio oso handiko ikastetxeetara doazen ikasleek unibertsitate-ikasketak egiteko itxaropen gutxiago dute Espainiako kasuan baino (% 38 Espainian, zortzi puntu gehiago). Ikasleen guztizkoari dagokionez ere, datuak okerragoak dira euskal erkidegoarentzat: % 21ek du unibertsitate-ikasketak egiteko asmoa, eta estatuan portzentaje hori ia % 27ra igotzen da (5 puntu gehiago).

Errendimendu akademikoari buruzko PISA puntuazioei dagokienez, Euskadin kontzentrazio oso altuko ikastetxeetara doazen ikasleen emaitzak txarragoak dira, ikasleen batezbestekoarekin zein kontzentrazio baxuko ikastetxeetara doazenekin alderatuz gero. Era berean, emaitza okerragoak dituzte estatuan baino.

Matematiketan jasotako puntuazioari dagokionez, Euskadin kontzentrazio oso altuko ikastetxeetako ikasleen eta ikasleen batezbestekoaren arteko aldea 63 puntukoa da (436 eta 495, hurrenez hurren). Dena dela, estatuan arrakala hori txikiagoa da: 37 puntu (453 eta 490).

Diferentzia horiek are nabarmenagoak dira kontzentrazio oso altuko ikastetxetara doazen ikasleak kontzentrazio oso baxuko ikastetxeetako ikasleekin alderatuz gero. Matematiketako gaitasunean, Euskadiren kasuan, ikasle batzuen eta besteen arteko aldea 89 puntukoa da (436 eta 524, hurrenez hurren). Berriz ere joera bera antzematen da, baina arrakala txikiagoarekin, estatuan (68 puntuko aldea ikasle batzuen eta besteen artean).

**«Ghetto ikastetxetara»
doazen euskal ikasleek
emaitza txarragoak lortzen
dituzte PISAn, mota bereko
ikasleek Espainian lortzen
dituztenak baino.**

Nolakoak dira Euskadin kontzentrazioa jasaten duten ikastetxeetara doazen ikasleak?



Tamaina ertaineko herrietan edo hirietan gertatzen da

Landa-eremuko haurrek ez dute segregazioa jasaten



Maila sozioekonomiko baxua dute

Errenta altukoak baino 7 aldiz gutxiago** (Espainian, 3 aldiz gutxiago)

10 haurretik 7 kuartil baxuenean daude



Haien gurasoen prestakuntza akademiko eskasa dute

Batezbestekoak baino 3 aldiz unibertsitate-ikasketa gutxiago dituzte (Espainian 2 aldiz gutxiago)



Euskadin jaio dira

10etik 4 etorkinak badira ere (Espainian 10etik 3)





Ez daude ikasleen batezbestekoa bezain pozik beren bizitzarekin

Batezbestekoarekin alderatuta, ia puntu baten diferentzia (Espainian ez dago desberdintasunik bi taldeen artean)



Emaitza txarrak lortu eta ikasturtea errepikatzeko probabilitate handiagoa dute

Ikasle horien % 56k errepikatu du; Espainian, berriz, % 36k

63 puntu gutxiago lortzen dituzte PISA-n (Espainian, 40)



Unibertsitate-ikasketak egiteko itxaropen gutxi dute

10etik 3k bakarrik espero dute unibertsitate-ikasketak egin ahal izatea (Espainian, 10etik 4k)



Ez dute asko garatzen ikastetxeko parte izatearen sentimendua

Kontzentrazio oso baxuko ikastetxeetako ikasleek duten sentimendu mota horren erdia adierazten dute

*** Lehen eta bigarren belaunaldiko

Segregazioan eragina duten Euskadiko hezkuntza-sistemaren ezaugarriak

Euskadik Espainiako hezkuntza-sistemako adierazlerik onenetariko batzuk ditu: adierazle onenak ditu 0 eta 2 urte arteko matrikulazioari dagokionez (2016an, Euskadin % 52, eta Espainian % 34,8),¹³ eta errepikatze-tasa (2016an, Euskadin % 25,8, eta Espainian % 34,8), eskola-uzte goiztiarraren tasa (2016an, Euskadin % 7,9, eta Espainian % 19), eta DBHko titulua lortzen dutenen tasa (Euskadin % 84,7, eta Espainian % 77,6).¹⁴ Datu horiek estatu osoko onenak dira. Hala ere, euskal hezkuntza-sistema ez da eraginkorra izaten ari jatorrizko desberdintasunak murrizteko zereginean. Hezkuntza-sisteman aurrera egiteko oztopo gehien izaten dutenak egoera ekonomiko okerrenean dauden ikasleak dira, eta 0 eta 2 urte arteko haur-eskoleetatik kanpo gelditzen ari direnak baliabide ekonomiko gutxien duten familien seme-alabak dira.

1. Itunpeko eskolen pisua: Euskadiko hezkuntza-sistemaren bereizgarri bat itunpeko eskolen kopuru handia da. Erkidego honetan, finantzaketa publikoa duten eskola pribatuen portzentajea gainerako erkidegoetakoa baino askoz ere altuagoa da (ia-ia denak dau-

de itunpean).¹⁵ Eskuragai dauden azken datuen arabera, Euskadiko ikasleen ia erdiek itunpeko ikastetxeetan ikasten dute.¹⁶ Baina, profil sozioekonomiko baxuko ikasleen matrikulazioari dagokionez, eskola publikoan gehiago dira.¹⁷

2. Hiru hizkuntza-eredu: Euskadin, ikasleek hiru ikasereduren artean aukeratu dezakete, lehenesten duten hizkuntzaren arabera. A ereduan, irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira (geroz eta gutxiago hautatzen da); B ereduan, bi hizkuntzak nahasten dira, gaztelania eta euskara, eta, zenbait kasutan, baita beste hizkuntza bat ere, hirugarrena (gaur egun ikasleen portzentaje handiena du); eta D ereduan, eskola-curriculum osoa euskaraz egiten da. Hiru hizkuntza-eredu egotea, eta familien maila sozioekonomikoarekin duten interakzioa, Euskadiko eskola-segregazioan eragina izan duen kausetako bat izan da. Egoera hau bereziki adierazgarria da Arabako Lurralde Historikoan.¹⁸

13 15 urteetarako kalkulaturako tasa.

14 2014-2015eko ikasturtea.

15 <https://www.mecd.gob.es/dms/mecd/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/educacion/indicadores-publicaciones-sintesis/cifras-educacion-espana/2015-16/C1-pdf.pdf>

16 http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_REVI=004060&N_FASC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

17 Gasteizko egoera nabarmentzen da, non atzerriko haurren % 92k ikastetxe publikoetan ikasten baitu. % 8k soilik ikasten du itunpeko ikastetxeetan. Atzerriko ikasleak sare publiko osoaren % 19 dira, eta itunpekoaren % 2 (kontuan izanik atzerriko herritartasuna duten haurrak soilik kontabilizatzen direla eta ez Euskadin jaio diren bigarren belaundiko etorkinak). Euskal Eskola Publikoaren aldeko Plataformaren datuak, Eusko Jaurlaritzak legebiltzarreko galdera bati emandako erantzunetik ateratakoak <http://www.manifestogasteiz.com/wp-content/uploads/2018/02/Prentsaurrekoa1.pdf>

18 <http://www.ehige.eus/es/argitalpenak/>

3. Puntuen esleipena ikasleen matrikulazioan: ikastetxeko kooperatibako bazkide izateak puntuazio gehigarri bat ematen du matrikulazio-prozesuan, eta ikasleak ikastetxean onartuak izateko aukera areagotzen du. Era berean, ikastetxeek (nagusiki itunpekoek) nola-baiteko askatasuna dute zenbait alderdi puntuatzeko, besteak beste, gurasoek ikastetxearekin duten lotura. Baldintza horiek, hasieratik ezaugarri zehatz batzuetako ikasleentzako hesi bat direnak, zuzentasunaren printzipioaren aurka doa, nahiz eta euskal araudia haren menpe egon¹⁹ eta eskola-segregazioaren kausa izan daiteke.

4. 0-2 urteetako hezkuntza: Euskadin, itunpekoak ez diren 0-2 urteetako hezkuntzako zenbait ikasgela itun publikoa duten ikastetxeetan kokatzen dira. Ikasgela horietan eskolatutako ikasleek (itunpeko) ikastetxe horretarako matrikulazioan lehentasuna izango dute eta, gainera, eskola publikoetan ez bezala, ikasketak bertan jarraitu ahal izango dituzte 18 urte bete arte. Politika honek egoera sozioekonomiko hobe bateko ikasleen kontzentrazioa sustatzen du, eta bestelako ikasleak sartzea eragozten du.²⁰

Kontuan izan beharreko beste faktore bat, zeinak eskolatze-eredu horrek eskola-segregazioan duen eragina larriagotzen duen, gainerako ikasleekin alderatuz gero ikasle behartsuenek heziketa hori jasotzeko duten aukera-desberdintasuna da.²¹

5. Kuotak kobratzea itunpeko ikastetxeetan: itunpeko ikastetxe askotan, heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak²² debekatzen badu ere, kuotak kobratzea inposatzen zaie ikasleen familiei zenbait zerbitzuren truke. Hori oztopo bihurtzen da sozialki kalteberak diren ikasleen sarbiderakos.

19 Save the Children (2016).

20 51. artikulua dio ekintza guztiak derrigorrezko eskola-orduetatik kanpo eskaini beharko direla eta, izatekotan ere, borondatezkoak izan beharko direla.

21 Behartsuen Txostena Euskadi Eranskina (2017).

22 <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1985-12978>

Zer lortuko genuke eskola-segregazioa ezabatuta eta eredu inklusibo baten aldeko apustua eginda?²³

Hamar ikasletik hirutan...



Euskadin eskola-segregazioa ezabatzeak, aintzat harturik azken urteotako gorako joera, kontzentrazio-maila eta errepikatze-tasa altuak, unibertsitate-ikasketak egiteko itxaropen-maila txikia eta ikasle segregatuek PISA-n lortutako puntuazio baxuak, funtsezko hobekuntza bat ekarriko luke; ez segregazioa jasaten duten haurrentzako soilik, baizik eta baita hezkuntza-sistemaren emaitza eta eraginkortasunerako eta euskal gizarte osoarentzat ere.



PISAko zientzietako emaitzak 30 puntu inguru igoko lirateke



Ikasturtea gainditzeko probabilitateak % 23an igoko lirateke



Unibertsitate-ikasketak egiteko itxaropena heren bat areagotuko litzateke



Haurrek beren garapenerako (profesionala zein pertsonala) behar dituzten gaitasunak eskuratuko lituzkete, eta, ondorioz, intolerantzia murriztu eta kohesio eta berdintasun soziala areagotuko lirateke

Horretarako, beharrezkoa da Hezkuntza Itunaren eta Hezkuntzaren Euskal Legea izango denaren helburuetako bat segregazioa ezabatzea izatea, eta arazo hori eteteko politika zehatzak ezartzea.

²³ Eskola-segregazioaren eragina kalkulatzeko, Propensity Score Matching (PSM) izeneko teknika ekonometrikoa aukeratu da, estatuko 2015eko PISA datuak erabilita.

Zer ari gara egiten Euskadin eskola-segregazioaren gaiari heltzeko?

Eskumenen banaketari dagokionez estatua-ren egitura deszentralizatuak izateak esan nahi du autonomia-erkidegoek dituztela hezkuntza-arloko eskumenak. Beraz, erkidegoak dira eskola-segregazioa deuseztatzeko beharrezko diren politika gehienak diseinatu eta martxan jarri behar dituztenak, estatua izanik politika horiek bideratzeko eta bermatzeko oinarriak ezartzeko ardura duena.^{24 25}

Euskadin eskola-segregazioa ezabatzekeko estrategiak garatzerakoan topatu dugun muga nagusienetako bat problematikaren ikusezintasuna izan da, eta eskola-segregazioa ezabatzea eskola inklusibo bat lortzeko funtsezko erronketako bat bezala ezartzeko borondate politiko falta. Nahiz eta gaur egun Eusko Jaurlaritzak eta Hezkuntza Sailak berak onartzen duten aniztasunaren kudeaketan erronkak badaudela, ez da modu esplizituan onartzen eskola-segregazioa arazo bat denik, ezta progresiboki areagotzen ari denik ere. Aldiz, zenbait erakundek, hala nola Arartekoak eta Euskadiko Eskola Kontseiluak, euskal eskolak aniztasunaren kudeaketan dituen arazoei buruz ohartarazi dute hainbat txostenetan.²⁶

Hezkuntza Itunerako Akordioaren Dokumentua berriki argitaratu den arte, aniztasunaren kudeaketatik eratorritako arazoak ez ziren hezkuntza-sistemeekin erlazionatzen, egoitza-segregazioarekin eta beste-lako faktore sozialekin baizik. Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016,²⁷ Eskola Inklusiboaren eta Kultura Artekoaren eremuan Ikasle Etorkinei Hezkuntza Arreta Emateko II. Plana 2016-2020²⁸ eta EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko Heziberri 2020 Plana²⁹ bezalako ekimenek helburutzat hartzen dute eskusio-arriskuan dauden ikasleek eskolatze orekatua, eskola inklusiboa eta sarbidean berdintasuna lortzea, besteak beste; baina ez dute ikasle kalteberen eskola-segregazio eta kontzentrazio-arazoen diagnostiko argi bat egiten.

24 Sicilia, G. eta Simancas, R. (2018).

25 «La respuesta a las necesidades educativas especiales» (2011) eta «Infancias Vulnerables» (2011) txostenak.

26 http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?R01HNoPortal=true&N_REVI=004060&N_FASC=0001&C_IDIOM=eu&FORMATO=.pdf

27 http://www.euskadi.eus/plana_programa_proiektua/23-eskola-klusiboaren-esparruan-aniztasunari-erantzuteko-plan-estrategikoa-2012-2016/web01-s2hhome/eu/

28 https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8787/Etorkinen_Plana_azaroak_17_eus.pdf?1479394614

29 <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaz/heziberri-2020/>

Hezkuntza Ituna bultzatzearen bidez, Eusko Jaurlaritzak eskola inklusiboa sustatzeko eta, gainera, profil sozioekonomiko baxuko ikasleen kontzentrazioa ezabatzeko hezkuntza-politikak ezartzeko borondatea azpimarratzen du (segregazio kontzeptua oraindik Jaurlaritzaren narratiban ez bada agertzen ere). Aitorpen hori, zeina indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean jada agertzen den, aurrerapauso bat da Euskadin aniztasunaren kudeaketa bultzatzeko eta sustatzeko; izan ere, aniztasunaren kudeaketak hezkuntza-sistemarekin duen lotura aitortzen du, eta ez euskal biztanleriaren lurralde-banaketarekin duena soilik.

**Euskadiko Hezkuntzaren
aldeko Itunetik eratorritako
azken dokumentuak
eskola-segregazioari
modu integralean heltzeko
beharraren aitorpen esplizitu
bat izan beharko du.**

Txosten hau egiteko kontsultatu ditugun Euskadiko hezkuntza-sektoreko aditu eta aktoreek Hamaika Esku programa nabarmentzen zuten, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen ekimenetako bat delako, ikasle kalteberen ikastetxeetako kontzentrazioan eragina izango duena.

Programa horren oinarria PISAn puntuazio baxuenak dituzten ikastetxeetako irakasleak baliabidez eta prestakuntza-paketez hornitzea da, emaitzak hobetzeko funtsezko helburuarekin. Dena den, adituek zioten bezala, Hamaika Esku programak ez du ikastetxe bakoitzaren baldintza zehatzetara egokitzeko behar duen malgutasuna, ez du ikastetxeen baliabide gabezia orekatzen eta segregazioaren murrizketa ez du helburu espezifiko gisa hartzen. Gainera, programaren ebaluaziorik egin ez bada ere, ikastetxe horien estigmatizazioarekin lotutako hainbat arazo hauteman dira.

Bestalde, eskola-segregazio egoerak betikotzen dituzten praktikak nabarmentzen dira, esaterako: eskolatze-plazak eskariaren arabera zabaltzea (plazak gehitzen dira ikasleen gurasoek egin dituzten eskaera kopuruaren arabera), homogeneotasuna areagotzea eta profil sozioekonomiko altuak zenbait ikastetxetan kontzentratzea dakarrena; itunpeko eskolak beharrezkoak ez diren kuotak kobratzea, profil sozioekonomiko baxuenen ihesa eragin eta ikasgeletan homogeneotasuna sustatzen duena; edo itunpeko zenbait ikastetxeren ideia erlijiosoek kolektibo batzuen eskarian (familia etorkinak, adibidez) duten eragina.

Jaurlaritzak sustatutako ekimenekin batera, zenbait esparrutan sortu diren kezkek bultzatuta, beste erakunde eta kolektibo batzuek konponbideak bilatzera eta eskola-segregazioa geldiaraztera bideratutako ekimenak sustatu dituzte:

- «Eskola inklusibo baten alde eta eskola-segregazioaren aurka» Legegintzako Herri Ekimena (LHE),³⁰ euskal hezkuntza-sisteman kohesioa eta berdintasuna hobetzeko asmoa duena. Bideratzeko eta ondoren Legebiltzar autonomikoan eztabaidatzeko, 10.000 sinaduraren babesa behar du.
- Euskal Eskola Publikoaren Aldeko Plataformak eta eskola publikoaren aldeko Gasteizko Manifestuak (DENON ESKOLAK)³¹ «biztanleria guztiarentzako hezkuntza inklusibo» baten aldeko apustua egiten dute, eskola publikoa «denontzat izan dadin». Era berean, defendatzen du hezkuntza publikoa kohesio sozialaren funtsezko elementu bat dela, eta hor gizarte honetako pertsona guztiak sartzearen alde lan egiteko beharra azpimarratzen du.
- Gasteizko Udalak heziketa-segregazioa aztertzeko onartu zuen erakunde arteko laneko mahaia, zeina 2016ko ekainaren 28an osatu zen funtsezko bi helbururekin: Udalerriko eskola-segregazioaren kausa eta ondorioei buruzko analisi partekatu bat egitea eta lan proposamen sorta bat garatzea Hezkuntza Administrazioari, Udalari, ikastetxeei eta tartean dauden hezkuntza eta gizarte-eragileei aurkezteko.

30 <http://www.baikara.eus/wp-content/uploads/2017/11/LEGEGINTZAKO-HERRI-EKIMENA.pdf>

31 http://www.denoneskola.eus/www/images/stories/interculturalidad/Manifiesto_con_adhesiones_cast.pdf

Euskadin eskola-segregazioa deuseztatzeko proposamenak

Politika publikoen gomendio horiek hezkuntza-administrazioen eskura dagoen «erreminta-kutxa» bat dira, eskola-segregazio sozioekonomikoari aurre egiteko askotariko aukera eraginkorrak eskaintzen dituena. Aukera horiek tokiko testuinguru bakoitzaren arabera hautatu, konbinatu eta egokitu behar dira.

Hezkuntza Itunak eta Hezkuntzaren Euskal Legea izango denak aukera sortzen dute Eusko Jaurlaritzak, bertako indar politiko autonomikoekin eta hezkuntza-komunitatearekin batera, eskola-segregazioa geldiaraztea eta ezabatzea ahalbidetzen duten neurriak sustatu eta euskal eskola inklusiboago baten aldeko apustua egin dezan. Horretarako, garrantzitsua da epe zehatzak eta martxan jartzeko baliabideak finkatzea.

Eskola-segregazioari aurre egiteko hiru hezkuntza-politikaren gainean jardun daiteke. Eskolatze-fase zehatzaren eta gainditu nahi diren hesien arabera, bat edo beste erabiliko da.

Nolako ikastetxeak sortzen ditugun eta non eraikitzen ditugun zehazteko eskaintza-politikak (plangintza)

1. Inklusio-irizpideen arabera ixtea eta irekitzea ikastetxeak eta lerroak, eta eskusio-arriskuan dauden ikasleen kontzentrazio gehien dagoen eremuetan gehitzea ikastetxeak eta lerroak.

2. Kontzentrazio altuko ikastetxeek ohiko matrikulazio-epea ixten denean eskaintzen dituzten plaza kopurua murriztea (ratioa jaistea), matrikula biziaren kontzentrazioa saihesteko.
3. Eremu bateko esku-hartzeak sistematikoki bihurtzea; hau da, zerbitzu osagarriak (jantokia, goizeko gela, eskolaz kanpoko ekintzak), eskaintza akademiko espezializatua (elebitasuna, hizkuntza-eredua) edo eskola-eguna eremu bateko funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztietan ezartzea, Administrazioaren esku-hartze proaktiboaren bidez.
4. Dibertsitatearen kontzeptua ekitatearen ideiak eta elementuak lantzeko helburu zehatz gisa derrigorrez txertatzea, aniztasunaren errespetuarekin batera, funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztien heziketa-proiektuan. Administrazioa arduratuko da proiektu horiek betetzen direla ikuskatzeaz.
5. Bigarren hezkuntzako ikastetxe berrari haur eta lehen hezkuntzako osaera sozial desberdineko ikastetxe konbinazio bat esleitzea.

Ikasleen eskolatzea kudeatzeko eskari-politikak (onarpena)

6. Plazen erreserba era proportzionalan dimentsionatzea zentro bakoitzean, lurraldeko ikasle eskolatuen osaera sozialaren arabera, errolda eta bestelako iturriak erabiliz, ikastetxeen osaeran heterogeneotasuna bermatzeko helburuarekin.

7. Informazio-ekintzak garatzea, kalteberatasun-egoeran dauden familiak ahalduentzako ikastetxea aukeratzeko orduan.
8. Kontzientziazio-kanpainak martxan jartzea, erdi-mailako familiek ihes egin ez dezaten eta ikastetxe inklusiboak hautatzera bultzatzeko.
9. Tamaina ertaineko eskolatze-eremuak sortzea, osaera sozial heterogeneoko populazioak jasotzeko.
10. Eremukako matrikulazio-bulego zentralizatuak sortzea, ahal bada udalerrian, familia kalteberei hezkuntza-eskaintzari eta haien eskubideei buruz informazio ulerterraza eta laguntza eskaintzeko, eta izen-emateak jasotzeko eta kudeatzeko. Gainera, eskolatzeko adinean dagoen biztanleriaren baldintza sozioekonomikoen analisia egin beharko dute, eta baita ikasleak aurrez ezarritako ekitate-eta inklusio-irizpide batzuen arabera banatzeko neurriak abian jarri ere.
11. Eskolatze-batzordeak indartzea, eskola publiko eta itunpekoen, administrazioen eta hezkuntza-komunitatearen arteko koordinazio-eremu gisa, eskola inklusiboaren erantzunkidetasunerako.
12. Plazak esleitzeko algoritmoak aldatzea, ez dezaten egoera onenean dauden familien hautaketa estrategikoa erraztu.
13. Itunpeko ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen jarraipen proaktiboa, kuota bidegabeak direla-eta ikastetxe publikoetara ihes egitea eragozteko.
14. Funts publikoekin mantendutako ikastetxe guztientzako eskola-mapa bakarra eta bateratua, HLOk ezartzen duen bezala.
15. Ratioak salbuespen gisa handitzeko aukera soilik araudiak aurreikusitako egoeretan eskariari erantzuteko erabiltzea (nahitaezko desplazamenduak, hezkuntza-premiak...), eta ez ratioa handitzea eremuko beste ikastetxeetan oraindik plaza hutsak daudenean.
16. Ikasle guztiei onartuak izateko irizpideak ezartzea 3 urtetik aurrera, ituna martxan jartzen denean, legeak ezartzen duen bezala.
17. Zentro batean izena emateko, aurretik bertan ikasitakoa izateagatik, gurasoak kooperatibistak izateagatik edota hezkuntza-zentroak bere iritziaren arabera ezarritako beste edozein arazoirengatik ematen den puntuazioa kentzea.

Ikastetxeetan ikasle kontzentrazioaren ondorioei aurre egiteko baliabide-politikak (konpentsazioa eta erakarpena)

18. Baldintza sozioekonomikoekin lotutako beharrak dituzten ikasleen detekzioa hobetzea, tokiko erakundeekin eta gizarte-zerbitzuekin lankidetzan.
19. Ikastetxeen kontzentrazio-mailak neurtzea, matrikulazio-prozesuan familien maila sozioekonomikoari buruzko datuak jasota, eta adierazle eta indizeak ezartzea modu estandarizatuan, konparazioak egin ahal izateko ikastetxe, eremu eta autonomia-erkidegoen artean.
20. Gutxieneko eta gehieneko inklusio-tasa bat ezartzea, eta ikastetxe guztiak tarte horretan kokatuak egotea lortzea, eta hori bete ezean, neurriak hartzea.
21. Ikastetxeak baliabidez hornitzea, haien konplexutasun indizeen edo ikasle profilen presentziaren arabera (zentroak zein diren publikoki jakinarazi).
22. Berrikuntza-proiektu inklusiboak sustatzea kontzentrazio altuko ikastetxeetan, askotariko ikasle profilen eskaria erakartzeko helburuarekin.
23. Kontzentrazio altuko ikastetxeek autonomia izatea kontratazioan eta kontrol-mekanismoetan, irakasle egonkorrak eta kalitatezkoak lortzeko.
24. Pizgarriak eskaintzea kontzentrazio altuko ikastetxeetan, irakasleen egoera egonkortu dadin.
25. Itunen erregulazioa:
 - Itunen baldintzetan ekitate- eta inklusio-irizpideak eranstea.
 - Irizpide horiek ez betetzeak izango dituen ondorioak gogortzea.
 - Ikastetxe pribatuen finantzaketa hezkuntza-zerbitzua doan eta ekitate- eta Kalitate-baldintzetan eskaintzeko behar bestekoa dela bermatzea.
26. Irakaskuntza doakoa izatea bermatuko duten mekanismoak ezartzea, eskola-materialaren eta ekintza osagarrien kostua sistemak bere gain hartu ahal dezan: ikastetxeek kobra dezaketen gehienezko kostua erregulatzea eta kuota bidegabeen kobrantzaren kontra egitea, hezkuntzako ikuskapenen bidez.
27. Kalteberatasun-egoeran dauden ikasleei bekak eskaintzea, curriculumetik kanpoko jarduera osagarrien kostuari aurre egin ahal diezaion.
28. Ikastetxeak birgaitzeko, handitzeko edota ekipamenduz hornitzeko plan estrategiko bat bultzatzea.

Segregazioan eragina duten hezkuntza-politikak

ESKAINZA POLITIKAK

(plangintza)

Nolako ikastetxeak sortzen ditugu, eta non eraikitzen ditugu?

ESKARI POLITIKAK

(onarpena)

Nork aukeratzen du ikastetxea?
Zer hauta dezake? Nork du lehentasuna?

BALIABIDE POLITIKAK

(konpentsazioa eta erakarpina)

Nola eta zer baliabiderekin arduratzen gara ikasleez?



Save the Children